

A. EMILIANO BARANDIARAN. *Euskal-musikalarik bikiñak*. «Kulliska Sorta». Itxaropena Argitaldaria. Zarautz, 1967.

Liburu hau argitara eman eta egun gutxira hil zitzaigun bere egillea. Eta ongi iduritzen zaigu liburuaren berriekin batean egillearena ere ematea.

Aita Emiliano karmeldarrak Julian Barandiaran zuen bere bataio izena. Gipuzkoako Eskriatzan jaioa zan 1904-ko epaillaren 9-an. Markiñan hil da 1967-ko abenduaren 13-an. 1921-etik asi ta «Euskal Esnalea»n ikusi ziran bere lehen euskerazko idazkiak.

Aita Emiliano musika zuen bere dohainetarik bereziena. Karmeldar etxeetan ikasitakoez gainera Montserrat, El Escorial, Madril eta Gazteiz'en egin zituen bere ikastaroak. Hortik zetorkion Maestro de Canto Gregoriano titulua. Baita ere erderazko liburu bat ere badu *Psallite Sapienter* (Compendio de Música) delakoa, 1956-an argitaratua. Eta, euskeraz, *Eresi Ikasbidea* du, Euskaltzaindiari emana, oraindik argitaratzeke dagona.

Musika-zale izateak eraman zuen lan hau osotzera. Denok ez dakit, baiña geienok zatika argitaratuak zituan «Karmel» aldizkarian, ta orain hemen ditugu zerbait obetuak, bere biografi lan haietatik hoberenak autaturik, Eslaba, Goikoetxea, Azkue, Ravel, Arregi, Otaño, A. Donosti, Guridi, Usandizaga, Iruarizaga, Sarasate eta Gaya-

re'ren biografia ta musika lanen berri labur baiña zeatzak emanaz. Aintzin-solasean dionez, aspaldi, Etxaideren *Amasei seme Euskalerriko*'k eman omen zion ideia, hark euskal idazleeri bezala berak euskal musikalarieri egitea. Hau ere bete beharrezkoa zen euskal literatura. Batez ere gogoan izango badugu bere dohain hau, hain zuzen ere, gure herriaren dohainetarik berezienetariko bat dela. Horregaitik dio bere aintzin-solasean: «... ba-liteke gure Euskalerriko musika-arloa beste lurralde askotakoak baino landuagoa ta gozatsuagoa izatea.»

*Euskal-musikalarik bikiñak* gandik aparte, euskeraz, beste liburu hauek ditu argitaratuak: *Andre Mari Euskalerriko mendietan* (Bilbao, 1952) eta *Andre Mari gaztediaren eskuetan* (Zarautz, 1954). Eta argitaratu gabeen artean gelditzen dira: *Andre Mari gaztediaren biotzetan* eta *Andre Mari Mirarietan*, Gar-Mar'en «Sugerencias» euskeraz (I Atala). Baita ere, itzuliak zituen San Juan de la Cruz'en *Cántico espiritual* (Gogo-abestia) eta *Llama de amor viva* (Maitasun-sugar bizia). Hoiez gainera, urteak zear bildutako Euskal-esakera sail ugari xamar bat ere utzi du. Aita Migel Mari Juaristi «Dundunzar» euskaltzale zintzoa jabe egingo ahal da lan hoiek ez galtzeko.

J. S. M.

